



2002/03/27ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko otsaila

EUSKAL AE-KO ERAIKUNTZAREN KOSTUAK % 0,3 HAZI ZIREN 2002KO OTSAILEAN

**Urte arteko hazkunde-tasa (2002ko otsaila, 2001eko otsailaren aldean)
% 1,6koa izan zen.**

Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,3 hazi zen Euskal AEn 2002ko otsailean. Urte arteko aldakuntzari (2002ko otsaila, 2001eko otsailaren aldean) begiratuz gero, % 1,6koa izan da kostuen goratzea. Eta, aurreko abenduaren aldean, % 2,0koa izan da lehenengo bi hiletako tasaren goratzea, urtarrileko igoera handia (% 1,6) izan baita.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia otsaileko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

Lehengaien kostuen gehikuntzak (% 0,5) otsailean indize orokorrak izan duen ibilbidea markatu du. Izan ere, indizearen beste osagaiak (lan-eskuaren kostuak) ez du aldakuntzarik izan hilabeteko aldi horretan. Hala ere, urte arteko aldiari, lan-eskuaren kostuak % 3,5 handitu dira; lehengaien kostuak, berriz, % 0,3.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute otsailean: % 0,5 gehitu dira lehenaren kostuak, eta % 0,4 bigarrenarenak. Aldeak, alabaina, nabarmenagoak dira urte arteko bilakaeran: *obra zibila* azpisektoreko kostuak % 0,2 beheratu dira; eta *eraikinak* azpisektorekoak % 0,5 goratu dira, zazpi hamarren gehiago.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002 urtean, hauek izan dituzte gorakadarik handienak prezioetan: *karea, igeltsua eta eskaiola* (% 5,8), *beira* (% 2,4), *lehergaiak eta gasak* (% 2,3), *petroliotik eratorriak* (% 1,6), *asfaltozko produktuak* (% 1,6) eta *metalezko hodiak* (% 0,8). Hala ere, produktu horien guztien pisu erlatiboa nahiko txikia da, lehengaien saskian.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenagoak ageri dira kontsumitutako produktuen artean: *zementu artifiziala* (% 5,3), *pinturak eta bernizak* (% 5,1), *eskuzko lanabesak* (% 5,1), *beira* (% 4,4), *harri landua* (% 4,0), *lur egosiak* (% 2,6) eta *zementutik eratorritako gaiak* (% 2,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2002KO OTSAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,2	0,3	1,6	2,0
ERAIKINAK	118,7	0,3	1,7	2,0
OBRA ZIBILA	116,9	0,3	1,3	2,2
LEHENGAIEN KOSTUA	112,4	0,5	0,3	1,0
ERAIKINAK	113,1	0,5	0,5	0,9
OBRA ZIBILA	110,3	0,4	-0,2	1,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	127,9	0,0	3,5	3,5

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxe: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.: 945 017 505. Faxe: 945 017 501. Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--